



JOSU IZTUETA ▶ BIDAIRIA

«Informazioak laguntzen du, baina erreflexiorik gabe ez»

TOLOSA ▶ Josu Iztuetak eta Angel Ortizek zabalduko dituzte gaur Zumardi-Amalur jardunaldiak

NAIROBITARRA ▶ Autobusaren 25 urteak laburbilduko dituzte, 'Milioi bat kilometro lur azaletik' saioan ▶ 3

TOLOSA ▶

Sexualitatea, komigintza eta defentsa pertsonaleko ikastaroak

Berdintasunerako eta Gazteria sailek antolatu dituzte ▶ 5

TOLOSA ▶



Usabalgo beheko solairua. i. e.

Gainezkabide baten sistemak egin zuen huts Usabalen

Urak hartutako pistako egur guztiak aldatu beharko dituzte orain ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

30 urte Saharako errepublika sortu zutela

Han izan dira Tolosaldea Sahararekin-ekoak ▶ 6



Herriko txistularien omenaldia Anjel Alduntzini

LEITZA ▶ Zendu zela 25 urte bete berri direla, «50 urtetan herriko txistulari» izandako Anjel Alduntzin omendu zuten herri-kideek igandean. Goizean goizeko diana eta mezako aldia egin ostean, Karrapeko txistularien txokoan eskaini zuten emanaldia Leitzaoko 18 txistularik. Alduntzinekin txistu jotzen ikasitako eta

aritutako lagunek ez ezik, gaur egun herrian txistua jotzen aritzen direnek eta musika eskolan musika-tresna hori jotzen ikasten ari diren ikasleek ere parte hartu zuten kontzertuan. Hiru-lau belau-nalditako txistulariak, danbolin-joleak eta atabaleroak elkartu ziren. Alduntzinen estilora jo zuten, gainera, arin-arin. J. ASTIBIA ▶ 7

AMASA-VILLABONA ▶ 38. AIZKARDI IBILALDIA

Mendizaleek ibilbide luzea edo motza izango dute aukeran

Natura errespetatuz, mendizaletasuna bultzatzea eta Villabonaren inguruak ezagutaraztea du helburu ibilaldiak

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendizale Elkarteak 38. Aizkardi Ibilaldia antolatu du hilaren 26rako. Aurtten, gainera, eta parte-hartzea zabalatzeko asmoz, bi ibilbide prestatu dituzte: bata, V.Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria izango dena, eta bestea motzagoa, ibilbide erdikoia. Kirol eta kultur arloko helburuak ditu, antolatzaileen esanetan: «Mendizaletasuna bultzatzea eta Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz».

Ibilbide luzeak 42 kilometro ditu eta luzera erdikoak 23 kilometro. Luzea egin behar dutenek goizeko zazpian abiatu behar dute eta martxa gehienez hamar ordu eta erdian amaitu behar dute diploma eskuratzeko. Luzera erdikoak egin behar dutenek zortzietan abiatuko dira eta sei orduen buruan amaitu behar dute diploma eskuratzeko. Orduetegiaren inguruan antolatzaileek gogoratu dute ordu aldaketa izango dela hilaren 25tik 26ra biarteko gauean.

Izen-ematea

Dagoeneko irekita dago ibilaldietan parte hartzeko izen-



Amasa-Villabona inguruan egingo da Aizkardi Ibilaldia. HITZA

emate epea. Doakoa da, eta lau modutara egin daiteke: telefonoz, 649 71 71 82 zenbakira deituz (lanegunetan, 19:00etatik 22:00etara); Internetez, www.aizkardi.galeon.com helbidean; Aizkardiaren lokalean (ostegunetan, 21:00etatik 22:00etara) eta zeharkaldiaren egunean bertan.

Ondorengo datuak behar dira izena emateko: izena eta bi abizen, hautatutako ibilbidea, federatuta zauden ala ez, eta

federatuta baldin bazaude, klubaren izena ere bai.

Aizkardik lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezperan bertan lo egin nahi duten guztientzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek izena ematerakoan jakinarazi beharko dute. Zeharkaldia bukatzean, parte-hartzaileek udal-dutxak erabili ahal izango dituzte Olaederra kiroldegian.

Antolatzaileek garbi utzi nahi dute zeharkaldia mendi-

IBILBIDEAK ▶

IBILBIDE LUZEA

Luzera. 42 kilometro.
Ibilbidea. Villabona, Otita (Leitzarari), Lapurtxulo, Onddo (780 m.), Azketa (832 m.), Leuneta (880 m.), Abadekurutz (984 m.), Mandoegi (1.045 m.), Kondizateko lepoa, Leitzarari, Gorosmendi, Mugaga, Urdelar (858 m.), Belabieta, Meaka, Otsabi, Villabona.

Malda. 1.950 metroko malda gehitua du.

Denbora. Bederatzi ordu eta erdi inguru.

IBILBIDE MOTZA

Luzera. 23 kilometro.
Ibilbidea. Villabona, Otita (Leitzarari), Lapurtxulo, Astabizkar (575 m.), Amasola (Leitzarari), Praxku, Kanal Handia, Lastur, Villabona.

Malda. 850 metro inguruko malda gehitua du.

Denbora. Bost ordu eta erdi inguru.

ibilbide bat dela, eta kirol jarduera horrek bere arriskuak dituela. Aizkardi Mendi Elkar-teak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura.

Bere aldetik, izena ematerakoan, parte-hartzaileek uko eragiten diote elkar-tearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemnitazioak eskatzeari. Antolatzaileek mendi jarduera hori edo gainerakoak egiteko federatuta egotea gomendatzen dute.

Azkenik, gogoratu behar da, 17:30ak inguruan mendiko materiala zozketatuko dutela proba amaitu duten parte-hartzaileen artean.

ANOETA ▶

IT txartela ateratzeko informazioa KZgunean

Informatika-Internet erabiltzeko ezaguerak egiaztatzen ditu txartel horrek

ERREDAKZIOA

IT txartelak pertsona batek informatika-Internet erabiltzeko dauzkan ezaguerak egiaztatzen ditu. Txartel hori egin nahi duten anoetarrak herriko KZguneko arduradunarekin jar daitezke harremanetan. Gainera, tutorea etortzen den egunetan proba nolakoa den ezagutzeko aukera izango dute interesatuek, tutoreak erakutsiko baitie.

IT txartela ematen duen erakundea ESI da (European Software Institute), software prozesuetan espezializatua dagoena. Europako Batasunak sortu zuen erakunde hau 1993. urtean, Eusko Jaurlaritzaren laguntza instituzional eta finantzario garrantzitsuarekin, Europako enpresen software injinerutzan ohitura onak hartzen laguntzeko helburuarekin, sustapen eta hedapen jardueren bitartez.

www.euskadi.net webgunean agertzen da informazio guztia IT txartelari buruz: proba egiteko baldintzak eta epeak, aurkeztu beharreko dokumentuak, proba zertan datzan, probaren modulo desberdinak (Word, Excel, Access, Power Point, Linux, eta abar...).

hitza

txokoa

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

JOSU IZTUETA ▶ BIDAIAIRIA

«Jendeak oportzat hartzen duena, guk bizimodutzat »

Zumardi-Amalur naturara hurbiltzeko jardunaldiei hasiera emango diete gaur Josu Iztuetak eta Angel Ortizek

ESTI ZEIZTA

Nairobitarrak autobus ospetsuko kide da Josu Iztueta. Tolosan, 1980. urtean autobus zahar batera igo ziren Angel Ortiz eta Manuel Mokoroa, beste hamazapi bidaiarirekin batera. Jomuga bitxi bat zuten: Nairobi, Kenyako hiriburua. Hortik dator autobus ospetsu honen izena eta historia. Ibilbide luze hau *Milioi bat kilometro lur azaletik* izeneko hitzaldian laburbildu dute diapositiba ikusgarriekin. Saio hau gaur izango da, 20:00etan, Kultur Etxean, Zumardi-Amalur jardunaldiei hasiera emateko. Nairobitarra autobusarekin milioi bat kilometro egin zituzten ia 25 urtetan, eta munduari buelta osoa eman ez dioten arren, planetako txoko batetik bestera eramanez. Hiru autobusek osatu dute ibilbide hau, denek ere izen bera hartuz. Orain, berriz, zortzi bidaiarirekin jarraituko dute ibilbidea, furgoneta batean eraldaturik.

Kontaguz zer ikusiko den gaurko saio honetan.

Nairobira egin genuen lehenengo bidaia hori gauzatu zela 25 urte betetzen dira aurten. Hori dela eta, lehenengo bidaia horrek zer esan handia eman zuen, eta gehiago datorrenekok. Ordubeteko saio honetan, lehenengo zatian ibilbide honetako argazkiak ikusiko ditugu. Duela 25 urte baino lehenagoko irudiak, gero Nairobirako bidaiaok eta ondorengo urteetan egindakoak. Bigarren zatian, berriz, eztabaida edo mahainguru bat egingo da, bertan dauden esperientziak ere entzun ahal izateko.

Erraza izan al da 25 urte irudi gutxi batzuetan laburtzea?

Oso zaila da 25 urte ordubeteko saio batean agertzea, 15.000 argazkietatik 30 bat aukeratzeko. Horregatik, laburpen bat egiten saiatu gara, eta ondoren mahai inguru bat antolatu dugu.

Zenbat denbora daramakizute diapositiba saio honekin?

Duela bi urte hasi ginen proiektu honekin eta herriz herri ibili gara. Hitzaldi honekin batera, erakusketa bat ere badago. 35 argazki edo osatutako komiki moduko bat, azalduz nola hasi ginen eta egin dugun ibilbidea. Azken batean, gure bizimodua hau izan baita. Afizio izatetik, gure ogibide egitea pasatu genuen. Erakusketa hau ikusgarri izango da datorren hiru egunetan, Kultur Etxean, arratsaldeko seietatik zortzietara.

Nairobitarra autobusean abiatu ziren bidaiarien hasierako helburu haiek bete al dira?

Nik uste dut baietz, bestela lehenago utziko genuen. Bizitza interesgarri asko daude, eta guk hau aukeratu genuen. 24 urterekin argi geneukan bidaiatzea gustuko genuela, eta ilusioz jardun dugu. Jendeak oportzat ikusten duena, guk bizimodutzat hartu baitugu.

Urte hauetan zenbat aldatu dira bidaiariak?

Fisikoki, Nairobitarrak autobusa duela hiru urte desagertu zen, txatartegira bota genuen. Hortik aurrera, nik jarraitzen dut furgoneta batekin, eta hogeitaz bidaiari izatetik zortzira igaro gara. Baina espiritua mantentzen da. 24 urterekin hastean gazteenetakoak ginen,



Angel Ortiz eta Josu Iztueta (eskuinean), Nairobitarra autobusarekin. AITOR ELDUAIEN

bidaietako mundu honetan; egun, berriz, zaharrenak ez, baina... Norberak mundua ikusteko duen modua asko aldatzen da. Hala ere, gogoia eta ilusioa mantentzen da, hori bukatuz gero, akabo. Beti behar da nonbaitera joateko edo itzultzeko gogoia. Orain furgonetarekin eten fisiko bat eman da, baina bidaiatzen jarraituko dut, jarraipen bat da, nahiz eta pixka bat enkojitu.

Hitzaldiei dagokionez, aurten Ekialdeko Afrika izango da hizpide. Zer ikuspegi duzue lurralde honi buruz?

Nik zehazki, gutxi ezagutzen dut zonalde hau, Nairobirako lehenengo bidaia horretan ez bainuen parte hartu. Guk ikuspegi lokal bat emango dugu, Tolosatik nola ikusten dugun. Gehienetan berri txarrak dira bertatik datozkigunak; hala ere, bada etorkizuneko lurralde bat.

Zein ikuspegi dute Afrikarrek ingurumenarekiko?

Oso zaila da bizirik iraun nahian dabilen gizarte bati ingurumena zaintzeko eskatzea, hauek ez baitute estetika bezala ikusten natura. Guk gauza bera egiten genuen duela 30

HITZALDIA ▶

Izenburua. *Milioi bat kilometro lur azaletik.*

Gaia. Nairobitarra autobusaren 25 urteko ibilbidea diapositibetan.

Eguna. Gaur, marxoak 15.

Ordua. 20:00etan.

Tokia. Kultur Etxea.

Hizlariak. Angel Ortiz eta Josu Iztueta.

Hizkuntza. Euskaraz.

urte, eta orain, berriz, arbitro lanak egin nahi ditugu.

Zerbait berezia prestatu al duzue urteurren hau ospatzeko?

Ez genuen ospakizun handirik egin nahi, horrela suertatu da eta hitzaldi hau emango dugu Tolosan; baina gauza handirik ez dugu egingo. Erakustaldia beste herri batzuetara ere emango dugu, eta horrelakoak.

Jardunaldi hauek baliogarri ikusten al dituzu?

Informazioak laguntzen du, baina informazioak erreflexirik gabe ez. Informazioak balio du jendearen kontzientzia esnatzeko, baina jendearen kontzientzia esnatzetik akzioetara

pasatzeko egoera gertu eduki behar da, bai gosearena, bai gaixotasunarena... Hemen, beharrik ez bada gertu ikusten, elkartasuna eta horrelako gauzak ez dira ematen.

Behar bezain beste arreta jartzen al diogu ingurumena zaintzeari?

Bakoitzari galdetuz gero, denek baietz esango genuke, eta listoia guk egiten dugunaren arabera ipiniko genuke. Baina, nahiz eta gauzak asko aldatu diren, eta gero eta gehiago kontrolatzen dugun, gehiago egin genezake. Eta bakoitzak egiten duenari gehiago begiratu besteenari baino.

Ekintza hauez gain, zer egin beharko genuke gauzak aldatzeko?

Horrelako jardunaldiez gain, eskoletako hezkuntza, etxekoa eta agintariena beharrezkoak dira. Hauek gabe ezin izango da arazoa konpondu.

Aurrera begira, proiektu berriren bat ba al duzue?

Bidaiatzen jarraituko dut nik. Marokora noa hemendik hila-bete barru, udan berriz Islandiara joango naiz, eta udazkenean, ez dakit, Argentinara agian.

hilberria ▶
Joxe Agustin Zabala Malkorra


Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte baizik

Izeba-osaba eta lehengusua

OREXA, 2006ko martxoaren 14a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak
**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztieta prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



KULTURA ▶

Udaberri zantzua kultur jardueretan

Erakusketak, musika, pailazoak eta natur jardunaldiak, besteak beste

NOELIA LATABURU

Eguzkia berotzen hasten den honetan kultur jardunaldiak kolorez bustitzen dira. Hala, pintura erakusketak, kontzertuak, Pirritx eta Porrotx pailazoak eta natur jardunaldiak izango dira egunotan. Hauek dira Udalak antolatatu dituen kultur ekitaldi eta jarduerak:

ERAKUSKETAK

Dorleta Ortiz de Elgea. Pintura erakusketa, apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian. Erakusketa honen bisita orduak 17:30etik 20:30era izango dira, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.

Enrique Zaldua. Bihar inauguratuko du Zalduak bere pintura erakusketa, Aranburu Jaure-



Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia izango da larunbatean. I. GARCIA

gian. Apirilaren 22ra arte izango dute bisitariek ikusgai.

MUSIKA

Anari. Hil honen 18an, larunbatarekin, Anarik kontzertua eskainiko du, Bonbereneako taulan, 22:30etik aurrera.

Niko Etxart. Hilaren 24an, ostirala, Niko Etxart beteranoak kontzertua eskainiko du Bon-

bereneako eszenatokian, 22:30ean.

Tusuri eta Valvula antiretorno. Hilaren 25ean, ostirala, bi talde hauen emanaldia izango da entzungai Bonberenean, 22:30etik aurrera.

Atila y los Hunos. Fronton kafe-tegiak Atila y los Hunos talde tolosarraren kontzertua hartuko du, hilaren 31n, 23:30ean.

Gor Gaua: Leihotikan eta Ezinean. Martxoko azken egunean. Leihotikan eta Ezinean izango dira, Bonberenean, 22:30ean, Gor Gauaren barnean.

BESTERIK

Zumardi-Amalur jardunaldiak. TEEK antolatuta, Zumardi-Amalur jardunaldiak izango dira, gaurtik ostiralera bitarte. Hiru hitzaldi izango dira entzungai.

Pirritx eta Porrotx. Pailazoaren emanaldia izango da larunbatean, Beotibar pilotalekuan, 18:30ean. Sarrerak Kultur Etxean daude salgai **Ipuin kontaketa.** 4 eta 6 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa izango da Errotan, 18:00etan, hilaren 22an.

Titulazio aurkezpena. Deusto unibertsitateko titulazioen aurkezpena, 18:30ean, hilaren 22an.

GIZARTEA ▶

Eurien ondorioz, urez bete zen Usabalgo solairuko pistako egur guztiak aldatu beharko dituzte

Maiatzerako prest izatea aurreikusi dute; gainezkabide baten sistemak huts egin zuen

ERREDAKZIOA

Tolosako Usabal kiroldegia behereko solairua urez bete zen iragan larunbatean, botatuko euri jasaren ondoren. Izandako kalteen azterketa egin ondoren ondorioztatu dute gainezkabide bateko iragazgaitz sistemak ez zuela ondo funtzionatu, eta botatuko euriak errekarren ur maila igo ondoren ur hori gainezkabide horretatik kiroldegira sartu zela. Teknikoek hermetismoak izandako akatsaren arrazoiaren bila darraite, eta «zonaldean egiten ari diren hodi biltzaileen lanek eragina» izan dezaketela zehaztu dute. «Ura xur-

gatu egin zuen, kanporatu ordez», azaldu zuten, hain zuzen, teknikariek, gertakarien berri ematerakoan.

Kalteak handiak izan dira urez bete zen behe solairuari dagokionez; izan ere, bertan zegoen entrenamenduetarako egokitutako pistako lurraren egur guztiak aldatu beharko dituzte, orain arte zeudenak ez baitira baliagarriak izango ez-beharraren ostean. Iragarpenen arabera, maiatzerako berri ere prest izango da aipatutako gunea. Bien bitartean, kirol elkarteak bildu egin dira irtenbide bat topatzeko, eta jakitera eman dutenez, dagoeneko entrenatu ahal izateko leku



Gisa honetan geratu zen Usabalgo beheko solairua. I. GARCIA

berrien bila dabilta. Eurien ondorioz, kiroldegiko aparkalekua ere urez gainezka zegoen larunbatean, baina herenegun ireki zituzten zonalde guztiak.

Orain azterketa bat bideratuko beharko dute teknikoek, errepika daitekeen arazoari aurre nola egin erabakiko duen balizko irtenbide baten bila.

XAKE ▶

Intxaurren eta Vilena, Eskolartekoan lehen postuan

ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan Benjamin mailako Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketako bigarren saioa jokatu zen. Samaniegoko Danel Intxaurren eta Jesusen Bihotzako Aitor Villenak jarraitzen dute sailkapen buruan. Jesusen Bihotzako Eneko Maiz da hirugarren, aurreko biengandik puntu erdira. Txapelketa datorren igandean bukatuko da, 11:00etatik aurrera jokatuko da azken jardunaldia, Tolosako Xake Elkartearen.

Bestalde, Gipuzkoako taldekako Ligan, Tolosa-Ibarra-koei 3-1 galdu zuten, Donostian, Gros taldearen aurka.

iragarki laburrak ▶



Albizar. Zatituriko baseria salgai. Berrikuntza behar du. 200 m²-ko hiru solairu eta 35.000 m²-ko lursailarekin.

Alkiza. Bi familientzako baseria salgai. Berritzea. Informazio pertsonala.

Andoain. 80 m² dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Iggailuarekin.

Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko, lau logela,

bi komuna, egongela, sukaldea eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza. Berritua.

Donostia. Portu-Ene. Berrituriko etxebizitza ederra. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak.

Elosua. Berrikuntza behar duen baseria salgai. 35.000 m²-ko lursailarekin.

Ibarra. Berritutako etxebizitza beheko solairuan, 30 m²-ko bulegoekin.

Irura. Laskibar aldean, eraikuntza

berriko etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m²-ko etxebizitza.

Egoera ezinhobean.

Garajea aukeran.

Tolosa. Zumalakarregin, berritzen ari diren etxebizitza, informazio pertsonala.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Santa Klaran, 90 m² dituen

etxebizitza salgai.

Tolosa. Alokairuan sartzeko etxebizitzak ditugu aukeran, lan kontratua eta bermeak aurkeztea beharrezkoa izango da.

Tolosa. Belateko zonaldean, trasteleku berriak salgai 8.600 eurotik aurrera.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala eskaintzen da alokairuan. Guztia erakusleho.

Informazio pertsonala eskainiko da.

GIZARTEA ▶
NOELIA LATABURU

Berdintasunerako eta Gazteria departamentuek hiru ikastaro antolatu dituzte datozen hila-beteetarako. Lehenengoan, Kick-Boxing eta Defentsa Pertsonalaren inguruan hainbat nozio landuko dituzte, «oinarriko hurbilpena izateko asmoz». Tolosako edozein gaztek har dezake parte. Ikastaroa Indarra gimnasioan garatuko dute, ostiralero, 21:00etatik 22:00etara, apirilaren 7ra bitartean.

Bigarren ikastaroak komikiaren munduan «murgiltzeko gonbita» egingo die herriko gazteei, antolatzaileen esantzan. Raquel Alzate komikigile saritua izango da irakaslea, eta harekin hainbat oinarriko nozio landuko dituzte arlo honetan interesatutako guztiek. Ikastaro hau Kultur Etxean izango da, ostiralero, 18:30etik 21:00etara. Apirilaren 28an hasiko da, eta ekainaren 9ra bitarte iraungo du. Matrikula Kultur Etxean bertan egin beharko dute interesatuek, apirilaren 24a baino lehenago. Ikastaroak 20 euro balio ditu.

Azkenik, sexualitatearen inguruko ikastaroa antolatu dute Tolosako 13-17 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Honakoa ere Kultur Etxean izango da, ostiralero, 19:00etatik 20:30era, maiatzaren 5etik ekainaren 9ra bitarte. Apirilaren 25a baino lehen eman behar dute izena interesatuek, eta 20 euro ordaindu.

Hiru ikastaro hauen inguruko informazio gehiago Kultur Etxeko Gazte Informazio bulegoan jaso daiteke, edo 943 67 03 88 telefono zenbakian

Tolosako historiari, hitzaldiak

Bestalde, Tolosaren sorreraren 750. urteurrena dela eta, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak bere historiari buruzko hitzaldi sorta antolatu du. Azken ehiztariak, nekazal eta abeltzain iraultza, Iruntzur, Laskoain eta Nafarroako erreinua, herriaren sorrera, tenpluaren eraikuntza, aro garaikidea... izango ditu hizpide Aranzadi Zientzia Elkarte idazkari Juantxo Agirre Mauleonek, martxoaren 23tik ekainaren 8ra bitarte, ostegunero, 18:00etatik 19:00etara, Tolosako Kultur Etxean.

Kutxako Gizarte Ekintzaren laguntzaz antolatutako hitzaldiak gaztelaniaz izango dira eta guztira 10 euroko balioa izango dute. Izen-ematea hil honen 22a baino lehen egin beharko da www.kutxasocial.net edo 902 54 00 40 zenbakian. Gehienez 40 lagunek har dezakete parte.

Sexualitatea, komikigintza eta defentsa pertsonaleko ikastaroak antolatu dituzte

Berdintasunerako eta Gazteria departamenduen eskutik, herriko gazteei zuzendutako hiru ikastaroak martxo eta ekaina bitartean garatuko dituzte

Euskaltel

ORAIN, EUSKALTELEN SALTOKIETAN FUTBOLA ETA ESTREINALDIKO ZINEMA ESKAINTZEN DIZKIZUGU. HILEKO KUOTARIK GABE

ETA INFORMAZIOA ESKATZEAGATIK BAKARRIK **opari bat eskuratuko duzu**

Zatuz Euskaltelen saltokira, eta informa zaitoz **TB Digital Interaktibe Mini-az**. Futbol guztia, estreinaldiko filmik onenak eta helduentzako filmik onenak (Pay Per View) hileko kuotarik gabe, lehenbizikoz LTD (Lurreko Telebista Digitala) kanal guztiak, antenaren instalazioa aidatu beharrik gabe. Kanal digital gehiago eta zerbitzu interaktibo gehiago.

Oso erraza da. Zure ohiko Euskaltelen saltokira joaten bazara, jakingo duzu nola egin.

zuntzOptikoa
 zuntz optikoa
 zuntz optikoa

Euskaltel

GIZARTEA ▶

«Sahararrek gure laguntza ezinbestekoa dute uneotan»

Tolosaldea Sahararekin elkarteko Aitziber Malkorra eta Gregorio Eizagirre izan dira Saharako errepublikaren sorreraren 30. urteurreneko ekitaldietan



Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek gertutik ikusi dituzte uholdeek errefuxiatuen kanpamenduetan utzitako kalteak. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Errepublikaren sorreraren 30. urteurrenean, ohiko moduan hainbat ekitaldi antolatatu zituzten Saharan otsailaren azken egunetan, eta bertan izan ziren Tolosaldea Sahararekin elkarteko ordezkari moduan Aitziber Malkorra tolosarra eta Gregorio Eizagirre leaburuarra.

Lau egunetan zehar hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera izan dute: Saharako presidenteak hango egoeraz emandako hitzaldia, artisauen erakusketa, soldaduen desfileak, musika, dantza, antzerkiak... Munduko hainbat lurraldetatik joandako 3.000 lagun inguru —gobernu ordezkariak, elkarre eta erakundeetako kideak, prentsa...— bildu ziren ekitaldietara.

Halaber, urteurreneko ekitaldietan parte hartzeaz gain, errefuxiatu kanpamenduetan jasan berri dituzten uholdeek izandako eragina gertutik ikusi ahal izan dute bidaian; «adobezko etxe guztiak desegin ditu euriak, eta zabortege handi bat dirudite kanpamenduek; inoiz baino gehiago behar dute orain gure laguntza». Bestalde, sahararren jarrera azpimarra-

DIRU LAGUNTZAK ▶

Kontu korrante zenbaki hauetan eman ahal izango dira diru laguntzak:

Eskadiko Kutxa.
3035.0012.7401.2008.6016.
(Euskal Autonomia Erkidegorako).
Kutxa.
2101.0067.2200.1118.0866.
La Caixa.
2100.1758.6802.0007.7750.
Kutxa.
2101.0067.2000.1018.2384.
(Tolosako Udala).

tu dute elkarteko kideek; izan ere, «jasan dutena kontuan hartuta, ekitaldiak bertan behera geratuko zirela pentsa zitekeen, baina antolatatu egin dituzte, hori baita beraien jokabidea, itzaropena galdu gabe aurrera egin».

Hala ere, «sahararrek 30 urte luzeetan euren eskubideak aldarrikatu dituzte eta hasieran zeuden moduan jarraitzen dute; horregatik, uste dugu behingoz garaia dela Marokok duen ardura bere gain hartzeko», adierazi dute Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek.

VILLABONA ▶

Herri Olinpiaden inguruko bilera gaur Gaztetxean

Onddo Gazte Asanbladak antolatutako Herri Olinpiaden baitan, gaur bilera egingo dute, 19:00etan, Gaztetxean. Bertan, larunbateko marrazketa probaren inguruan hitz egingo dute. Aurreko saioan parte hartu ez zuten koadriak ere gonbidatu dituzte antolatzaileek.

ANOETA ▶

Batzar informatiboa gaur AHTri buruz

Batzar informatiboa egingo dute gaur Anoetarrok Auzolanean. Anoetako Segi, Anoetako Gazte Asanblada eta AHT Gelditu! elkarlanak deituta Idiakaitz auzoko plazan, 19:30an. Helburuak AHTK eragingo lituzkeen zubibide eta tunelen datuak zabalitzea eta auzokideen zalantza eta kezak argitzea izango dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarano autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

«Maratoian parte hartzea oso hunkigarria izan da»

Urteurreneko ekitaldien baitan Saharako VI. Maratoia ere egin zuten, eta bertan Ion Diaz tolosarrak hartu zuen parte. Adin eta maila desberdinetan banaturiko lasterketak izan ziren. Tolosarraren kasuan, Aaiundik abiatuta, Ausserd igaro eta Smarara bitartekoa egin zuen, 42 kilometro guztira. «Mundu osotik joandako 80 lagun izan ginen denera parte hartu genuenak; lau korrikalari euskaldun aritu gara, eta horietako batek, ormaiztegiar batek, hain zuzen ere, bigarren amaitu zuen». Tolosarrak azaldu duenez, «baldintza oso onak izan genituen korri egiteko, eguraldi aproposa egin baitzuen». Antolakuntzari dagokionez, berriz, lan ona egin zutela esan behar dela dio korrikalariak; «beldur pixka bat bazuten antolatzaile-

ek; izan ere, aurreko urteetan desertuan galdu denik ere izan da, baina aurrean ez da horrelakorik gertatu».

Bestalde, Diazek maratoiko bide gehiena bakarrik egin zuela azaldu dio HITZARI; «modu horretan egiteko lasterketa dela uste dut, ingurukoaz gozatzeko, paisaiak ikusteko, bertako egoeraz jabetzeko...». «Bidaia oro har eta maratoia oso hunkigarriak izan dira niretzat; lehendabiziko aldia izan da Sahara bisitatzeko nuena, eta nola bizi diren ikustea gogorra izan da», azpimarratu du tolosarrak. Bidaiek iraun dituen egunak, elkarteko kideen modura, bertako familia batekin igaro ditu Ion Diazek; «da ez dutela ezer esan daiteke, eta duten apur hori ere ematen dizute», nabarmendu du. ◀



Ion Diaz tolosarra helmugara iritsi zen unean. HITZA

LEITZA ▶ KULTURA

Alduntzin gogoan, herriko txistulariek emanaldia egin dute betiko txokoan

Bera zendu zela 25 urte bete berri direlarik, 18 txistularik parte hartu dute ekitaldian, harren aireak eta airera joz



Hemezortzi txistularien artean batzuk Anjel Alduntzinekin berarekin ibilitakoak badira. JAIONE ASTIBIA



Musika eskolako gazteek –erdian– ere agerraldia egin zuten jendaurrean. J. ASTIBIA



Herriko txistulari eta atabaleroen oroigarrien azpian. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Karrapeko txistularien txokoak ez ohiko itxura agertu zuen pasa den igandean: 18 txistularik kontzertua eskaini zuten, duela 25 urte zendu zen Anjel Alduntzin txistulariaren oroimenez.

Goizean goizeko dianako itzulia eta mezako aldia eginda, Karrapean egin zuten emanaldia txistulariek, entzutera bertaratutako zirentzat gosaria ere banatu zutelarik: txistu hots biziarekin batera, salda beroa eta txistor egosia ere banatu zuten. Eta, noski, dantzan egiteko halako aukerari muzin egin ez zionik ere izan zen, eta koadrilatxoa kriskitinak joz ibili zen.

Otsailean izan zen urtemuga, eta «50 urtetan herriko txistulari» izandako Alduntzin gogora ekartzeko egin zuten emanaldia. Harekin txistu jotzen ikasitako eta aritutako lagunek ez ezik, gaur egun herriko txistu jotzen aritzen direnek eta musika eskolan musika-tresna hori jotzen ikasten ari diren ikasleek ere parte hartu zuten. Adin guztietako musikariak nahaste, hiru-lau belaunalditako txistulariak, danbolin-joleak eta atabaleroak elkartu ziren, beraz.

Eta jo ere, 20-25 «jota eta porrusalda eta korro» jo zituzten, txandaka-txandaka, guztiak Alduntzinen errepertoriokoak: han edo hemen berak entzun eta berak txistuz jotzen ikasitakoak edota bere aurrekoek ikasitakoak; eta bizi-bizi jo ere bai.

Haren estilora

Alduntzinek hala jotzen baitzuen, azkar, arin-arin, eta txistua jotzeko modu hura ere ekarri nahi izan zuten gogora hauek, «Anjel ziztulariaren estilora joz».

Txistularien txokoan, –halaxe deitzen zaio igande eta jai arratsaldero txistua jotzen ari zuten lekuari, eta hor dauke jarrita herriko atabalero eta txistulariei eskainitako oroigarriak ere–, txistu-soinuak adituko direnik, beraz, ez dago zaltzantzan jartzterik.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA



Hondea-makina lanean, atzo eguerdian, ikasleen arretapean. J. ASTIBIA

Agrikolako ataria moldatzen ari dira

Ur putzua ez egiteko zoladura eta jostailuentzat babes jarriko dute

J. ASTIBIA

Atzo bertan ekin zion Udalak Agrikolako ataria moldatzeari. Hondea-makina zoladura kentzen aritu zen eguarterean, harri-txantzarrezko gunean.

Euriarekin, ur-putzua egiten zelarik, baliogabetuta geratu ohi zen eremu hori. Hori ekiditeko helburuz, «zoruan porlana bota behar dute, urak bideratzeko eran», ziotenez; eta gero, berriz, harri-txintxarra

bota beharrean, horren ordez, bertan dagoen jostailuaren azpian, «beharrezko babesak» jarriko omen dituzte.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Irakurleen iritziak. Gure web-orrian, egunkarian argitaratu den edozein informazioaren inguruan duzun iritzia, ikuspuntua, esatekoa... adierazteko bidea duzu.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91ra.

SALGAI

Kopistegia. Alokairuan edo salgai, lbarran kopistegia-inprimaketa digitala. Laguntza izanen duzu. Interesatuak deitu 615 73 61 85ra.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Herri Ikastolaren batzarra. 19:00etan lehen deialdia, 19:30ean 2.a.
Asteasu. Abesbatzakoek kantujira egingo dute hilaren 25ean, 12:00etan hasita. Ondoren, bazkaria. Izen-ematea 687 27 31 63an, hilaren 17a baino lehen.
Berastegi. Odol-ematea. 18:30etik aurrera, Muñagorri eskolan.
Tolosa. Odol-ematea. 10:00etatik 12:00etara, Inmakulada ikastetxean.
Tolosa. Alpino Uzturrek Ermua-Landa mendi irteera antolatuta du iganderako. Izen-ematea, elkartearen (943 65 27 89).
Tolosa. Santa Maria kaperak eta Udalak omenaldia egingo diote Pepe Arzelus organistari hilaren 19an. Bazkarirako (Frontonen) txartelak salgai Zabala estankotan, Lardiesen eta Santa Maria parrokian.

HITZALDIAK

Altzo. *Heziketa ereduak familian.* Nerabeen eta gurasoen arteko erlazioez, Izadi gizarte gaiak ikertzeko gabinetek. 17:00etan, Ertotxen.
Ibarra. Itziar Arratibelek Eritrean egin duen lana aurkeztuko du. 20:00etan, Kultur Etxean. Misio Astean.
Tolosa. Afektibo eta sexu heziketa programaren aurkezpena, DBH3ko eta Batxilergo 1eko ikasleen gurasoei. 16:30ean, Orixen.
Tolosa. *Miloi bat kilometro lur azaletik.* Josu Iztuetak eta Angel Ortizek Nairobitarraren 25 urteak laburbilduko dituzte. 20:00etan, Kultur Etxean. Aurkezlea: Joxemi Saizar. Amalur jardunaldietan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
18:00-19:00. Irauli uhinak.
21:00-22:30. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Atzerrian trebatzera

TOLOSA ▶ Poloniara eta Italiara abiatu dira Paper Eskolako bost ikasle, Anisia eta Kontrola zikloa amaitzeko hiru hilabeteko praktikak egitera



Naiara Yurrita, Nerea Madina, Kontxi Pastor, Zuriñe Martin eta Nekane Elizalde, atzo goizean, Paper Eskolaren atarian. Gaur abiatu dira atzerrira, eta ekainaren 7an itzuliko dira. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Leerro hauek irakurtzerakoan, haiek Poloniara edo Italiara bidean izango dira, edo baliteke jada beren bizitoki berrira iritsi izana. Kontxi Pastor tolosarra, Naiara Yurrita anoetarra, Nerea Madina legazpiarra, Zuriñe Martin andoainarra eta Nekane Elizalde goizuetarra dira, Tolosako Paper Eskolako ikasleak —emakumezkoak dira denak; «mundu hau dagoeneko ez da gizonezkoena!—. Anisia eta Kontrola 2.000 orduko Goi Mailako Heziketa Zikloa ikasten ari dira guztiak, eta ikasturte amaierako praktikak egitera doaz atzerrira. «Urduri eta ilusio handiarekin» mintzatu ziren atzo HITZAREKIN, bidaiaren bezperan.

Ikaslanek kudeatu dituzten praktikak hauek, Leonardo bekak izeneko ekimenaren bidez. «Ez dakigu zehazki zertan ariko garen, baina ikasi duguna praktikan jartzea eta ikasten jarraitzea gustatuko litzaiguke. Esperientzia polita dirudi».

Hiru hilabeteko praktikak dira. Bost ikasle hauek atzerrian egingo dituzte, eta Mikel Garziandia, Carmen Murguera, Nerea Berra eta Paz Perez gelako gainontzeko ikasleek inguruan. Atzerrira doazenak gaur bertan abiatu dira, eta ekainaren 7an itzuliko dira. Madina, Martin eta Yurrita Wroclaw hirira (Polonia) doaz, eta Pastor eta Elizalde Florenciara (Italia). «Lanean hasi baino lehen hango hizkuntza ikasteko eskolak jasoko ditugu bi astez. Ea zer moduz moldatzen garen!».

Laborategiko analista (kimikoa, mikrobiologikoa, instrumentala...), kalitate kontrolaren analista, I+D analista eta ur analista dira, besteak beste, ikasle hauek bete ditzaketen profilak. Hala, esaterako, araztegieta edo elikagaien industrian egin dezakete lan. Hiru hilabeteko praktikak amaitzean memoria bat egin eta ikastetxean aurkeztu beharko dute, lan mundura murgildu aurretik. «Etorbizunean zer gustatuko litzaigukeen? Ikerketa laborategi batean jardutea saririk handiena izango litzateke».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Jon Lopetegi Arrue (Tolosa). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu asko ebeko guztien partetik. Ondo pasa!



URTE ASKOAN
Leire. Zorionak eta 7 muxu potolo familia guztien partetik.



URTE ASKOAN
Amale Garate Iturzaeta (Amaroz). Gaur 5 urte. Zorionak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...